



ESKUALDEKOAK MUNDUKO KOPAREN FINALERA

Maidar Mendizabal eta Nagore Arozena, ligaxkako bigarren partida irabazi ostean, finala jokatzeko sailkatu dira >5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-11-23**

VIURTEA 1.567.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Juan Ugartemendia txapela jantzita, eskuinean, Alberto Labaka bigarren sailkatua eta ezkerrean, Joxe Mujika hirugarren sailkatua, atzo, Tolosan. R. CALVO

Barriolak 22-19 irabazi du Titinen aurka, ligaxkako hirugarrenean

LEITZA Gaurko partidaren erabakiko da finalera pasako den ala ez 5



Herri kirol saioa, atzo frontoian. A. I.

BABARRUN ONENA ALBIZTURKO JUAN UGARTEMENDIARENA

TOLOSA Albizturrera joan dira Babarrun Ekoizleen Lehiaketaren lehenengo eta hirugarren sariak; irabazlearen lakari baten enkantean, 2.015 euro ordaindu zituen Fronton jatetxeak 6-7

Sorginari agur esanez, amaituko dira gaur jaiak

AMASA San Martin jaien baitan gaur ere ekitaldi ugari izango dira 4



Itzala uzten diguten gizon-emakumeek

Badakite tratu txarrek barrua dutela iluntzen azala baino lehen, eta horregatik daukate argi ezinbestekoa dela laguntza ematea, gure itzala eskaintzea. Denok bat.

EGIN AURRE: HARTU AURREA TRATU TXARREI



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa
zure ondoan

G Gutunak

Indarkeria Sexistaren
Aurkako Eguna

Beste urte batez, Emakumeengana-ko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Tolosako ezker abertzaleak salaketa egin nahi du eta biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

2008. urtea hasi zenetik Euskal Herrian 5 emakume erail dituzte eta duela hilabete luzetik beste emakume bat desagerturik dago. Eraso sexisten inguruko gertakariak eta salaketak egunero entzun ohi ditugun elementuak dira. Herriko jaietan edota jai eremuatan emakumeon askatasuna baldintzatu eta eraso sexisten areagotzea ematen da. Lan eremuan ematen diren sexu jazarpenen datuak ere kezkatzekoak dira. Gazteriaren artean sexuen arteko botere harremanak eta balore patriarkalak iraurarazteaz gain, mutil askok

nesken kontrako indarkeria ere baliatzen dute...

Beraz, Euskal Herriko indarkeria sexistaren diagnostikoa osatu ahalizateko datu zehatzik ez badugu ere, aipaturiko datuak oinarri hartuta, emakumeon kontrako indarkeria gure herriko arazo sozio-politiko nagusia dela ondorioztatu dezakegu. Euskal emakumeon integritatea eta segurtasuna baldintzatzen duen errealitate, euskal jendartearen demokrazia maila eskasaren ispilu dena.

Euskal Herriko zatiketa administratiboa iraurarazten duten instituzioen iruzurra gero eta nabarmenago da. Administrazioen aldetik, emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartzeko martxan dauden lege, protokolo, orden eta akordio inter-instituzionalak ez dira praktikan jartzen ari, edota antzuak dira.

Halaber, administrazioek sustatzen duten itxurakeria salatu beha-

rra dago. Izan ere, indarkeriari aurre egiteko politika integral eta eraginkorra oztopatzeaz gain, mugimendu feministaren borroka eta zehazki, indarkeria sexistaren kontrako borroka, asimilatzeke saiakera iruzurtiak garatzen ari dira. Azken urteetan azaroaren 25aren testuinguruan *politikokizuzena* den diskurtsoa eta irudia plazaratzen ari dira, besteak beste, gure herriko alkatea. Konpromiso politikoetan oinarritzen ez den mezua eta ekimenak saltzen dizkigute.

Emakumeok pairatzen dugun egiturako indarkeriari aurre egiteko, egungo harreman eredu eta jendartearen egituraketa errotik eraldatu behar da. Eta horretarako, emakumeok eskubidedun subjektu osotzat hartzea ezinbestekoa da.

Instituzioen iruzurraren aurrean eta Euskal Herriko aldaketa politikoaren norabidean, politika feminista integralki aldarrikatzen

dugu. Norabide horretan urrats praktikoak ematen jarraitzeko konpromisoa berresten dugu. Urrats praktikoak bai prebentzio neurrietan, bai erasotu ondorengo neurri asistentzialetan eta baita erantzun soziala artikulatzeari begira ere.

Indarkeriari aurre egiteko emakumeon arteko elkartzasuna eta antolakuntza nahiz borroka feministaren premia eta balio politikoa azpimarratu nahi ditugu. Baita indarkeriaren aurrean jendarte osoaren inplikazioa ere. Izan ere, guztion ardura da nagusitzen den sexismoa eta indarkeria adierazpen ororekin bukatzea.

Ildo horretan dei egiten dugu azaroaren 25ean mugimendu feministak deitu dituen mobilizazioetan parte hartzera.

Eider Elduaien, Josue Aiestaran, Karmele Elizaran, Silvana Ostiza, Anaje Urkola (Tolosako ezker abertzalea).

B Blogteka infoUrrezko Q-a
Laskorain Ikastolara

Euskalitek, Kalitaterako Euskal Iraskundeak, Kalitatearen Urrezko Qa lortu dugula jakinarazi berri digu.

Berri pozgarria, dudarik gabe, Ikastolako hezkuntza-komunitate osoari dagokiona, ikasle, guraso zein langileoi; ikasle ohi, aliatu eta hornitzaileen ekarpenak ere ahaztu gabe. Mila esker guztioi!

Lan handiaren fruitua den sari honek bide onean jarraitzeko indarra emango digulakoan gaude.

Abenduaren 18an BEC-en jasoko dugu hainbeste lan egin ondoren lortu dugun saria, baina astearte arratsaldean, berria jaso bezain laster, denon artean ospatu genuen.

Zorionak!

Laskorain ikastolaren bloga

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/laskorain/>

K Komikia

Gorka Salaberria



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)



Amasako pilotalekuan txikienek ez zuten geldirik egoteko denborarik aurkitu atzokoan. ASIER IMAZ

Sorgina agurtuko dute XIX. Intxorraren aldatzearekin

Amasa » Herriko jaietan, Kulkiren eskutik meatzarien herri kirolak eta ume jolasak antolatatu zituzten atzo.

ASIER IMAZ

Benetan bitxia atzo arratsaldean Amasako pilotalekuan aurki zitekeena. Egitarauan herri kirolak eta ume jolasak ipintzen zuen. Hori

bai, meatzariena. Kulkiren eskutik txikienak hara eta hona ibili ziren pilotalekuan. Egurrezko txerriaren gainean jarri eta segundo gutxira txalaparta jotzera. Hemendik harria jasotzera eta gozatzeko aukera handirik gabe akerraren adarretan uztaiak sartzera: ezin geldirik egon!

Amasako Samartiñak oraindik bizirik dira eta atzokoan, ume krosa, argazkilehiaketaren sari banaketa eta gauean Lain eta Hesian

taldeen kontzertuak ikusteko aukera eskaini zuen. Jaietako Sorginak.

Sorginari agurra

Urtero bezala, Jaiei amaiera emateko Sorginari agur esango diote herritarrek. 18:00etan gertatuko da hori, XIX. Intxorraren aldatzearekin batera.

Goizari dagokionez, 11:00etan, Amasako XVI. Mendiartloia ospatuko dute.



Ikusle ugari III. Boulder herrikoian

TOLOSA » Oargi Mendi Elkarrean Mendi Hamabostaldiaren ekitaldien barnean III. Boulder Txapelketa herrikoia antolatatu zuen atzo elkartean bertan. Txapelketa 3 kategoriatan jokatu zen: haur kategorian, gazte kategorian eta seniorretan. Jende ugari bildu zen ikusle moduan. A. IMAZ



Euriarena ez zen euren errua izan

ADUNA » Kultur Astea gaur amaituko da Adunan, 14:00etan egingo duten herri bazkariarekin. Goizean txerriari harrera eta txerri-boda egingo dute. Zezilia Deunaren egunean, atzokoan, kantuan ibili ziren herrian barrena. Abeslariaren artean, herritarrek, inguruko herrietakoak eta Donostiatik etorritakoak aurkitzen ziren. Bikain moldatu ziren euskal abestiek. A. I.



Gorren festa bazkaritik aurrera

TOLOSA » V. Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astearen baitan, egitarau oparoa antolatatu zuten atzoko Tolosaldea-Goierrri Pertsona Gorren Elkarrean. Eguraldiaren erruz, goizeko herri kirol ekitaldia bertan behera geratu zen. Babarrun jatea eta antzerkiaren ostean, gauean gorrenzako musika festa ospatu zuten. ASIERIMAZ



ongi
etorri

euskaraz bizi nahi dugunon herrira

izan zaitetz 16. korrika laguntzailea!



Musikariak, abeslariak, hauen gurasoak, euria, Zezilia Deuna,... Altxon denetik ikusteko aukera zegoen atzo. A. IMAZ

Musikariak babesean zaindu nahi izan ditu Zezilia Deunak

Kultura » Altxon eta Tolosan musika eskola ezberdinetako ikasleak kalera irten ziren Zezilia Deunaren egunean.

ASIER IMAZ

Musikari zaindaria omen da Zezilia Deuna. Hori kontuan hartuta, hauek kalera irten ziren atzokoan. Loatzoko Musika eskolako haurrek, eskualdekoak, Altxoko Herri Frontoian elkartu ziren atzokoan. Pilotalekua txiki geratu zen, musikariek gain, hauen gurasoak ere bertan bildu baitziren.

Eguraldiak frontoira mugatu zituen atzoko ospakizunak.



Eduardo Mocoroa musika eskolako gazteak bibolina eta akordeoiekin. R. CALVO

Tolosan ere musika kalean

Loatzokoak Altxon elkartu ziren bezala, Tolosako Musika Banda eta Eduardo Mocoroa musika es-

kola Tolosako kaleetan ibili ziren. Arratsaldean berriz, Santa Maria kaperak emanaldia eskaini zuen izen bereko elizan.

Barriolak 22-19 irabazi ostean zain egon behar

Pilota » Titin III. 19an utzi zuen Abel Barriolak. Olaizola II.a eta Irujok gaur jokatuko dute partida erabakigarria.

gaur Olaizola II.ak eta Martinez de Irujok zer egiten duten ikusi behar harko da.

2. Mailako Lau t'erdikoa

Bigarren mailakoan, eskualdeko bi pilotari aurkitzen dira azken ligaxkan: Beloso tolosarra eta Olaetxea lizartzarra. Bigarren jardunaldian, Olaetxeak 22-7 irabazi zion Cabrerizo II.ari. Belosok berriz galdu egin zuen 22-16 Mendizabalaren aurka. Azken honek finalerako txartela lortu zuen garaipekin. Ligaxkako azken jardunaldian eskualdeko bi pilotariak elkarren aurka arituko dira ostiralean Legazpin. Irabazlea finalean egongo da.

A. IMAZ

Iruñeako Labrit pilotalekuan jokatu zuten atzo Titin III.ak eta Abel Barriolak Lehen Mailako Lau t'erdiko Txapelketaren partida. Bi pilotariak irabazi beharra zuten finalean sartu ahal izateko. Abel Barriola leizarrak irabazi zuen 22-19. Ondorioz, Titin III.a finalean ez dela egongo argi dago. Baina Barriola egongo den edo ez jakiteko

Neskak Munduko Koparen finalean

Pilota » Maider Mendizabalek eta Nagore Arozenak ligaxkako bigarren partida 30-29 irabazi zuten.

Ondoren aurrerago jarri zen eta oso ondo eutsi zien iparraldekoek. Gauzak horrela, Espainiako selekzioarekin jokatzeko ari diren eskualdeko bi neskek 29nako berdinketa lortu zuten. Azken tantoa Mendizabalek lortu zuen, finaleko txartelarekin batera.

ERREDAKZIOA

Munduko Kopako ligaxkaren bigarren partidaren, Frantziako selekzioarekin jokatzeko ari diren eskualdekoak aurreratu ziren 15 eta 3. «Arozenak partidaren lehen zatian ez zuten bere lekua aurkitzen.

Xarean porrota

Xarean jokatzeko ari diren bi irurak 40-11 galdu zuten euren partida Frantziaren aurka. Ligaxkako azken partida geratzen zaie eta irabaziz gero finalean egongo dira.



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



txokoa h

Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaren Asteak
aurten argitaraturiko

Japoniako animazio zinema izeneko

30 liburu

zozketan,
gure webgunean sartu
eta eskuratu!



ALBIZTURKOAK, ONENAK

Tolosa » Babarrun Ekoizleen Lehiaketa, lakarien enkantea, txapelaren inguruko ekimenak... denetatik ikusi ahal izan zen atzo herrian Babarrunaren Astearen barruan.

REBEKA CALVO

Iazko Babarrunaren Festan termometroak zero graduren bueltan zeuden eta aurtengoan, aldiz, epelxeago bazegoen ere euria zen nagusi. Aterkiak ziren nonahi eta giroak ez zuen kalean gora eta behera ibiltzeko aukera handirik ematen, baina Tolosako Babarrunaren Festa eguna zen atzokoa eta euripean izan bazen ere antolatutako ekintza ia guztiak egin, egin ziren. Izan ere, Tolosaldea Tourrek antolatutako babarrunaren inguruko bisita gidatuak bertan behera geratu ziren eguraldia zela eta. Gaintzeko guztia, hala ere, iragarri bezala bete zen eta giro ona izan zen egunean zehar.

Batetik, Babarrunaren Azoka Berezia izan zen Trianguloan. Bertan, nola ez, babarrunak esku-ratu ahal izan ziren, baina baita lekale honen inguruko produktuak ere; piparrak, odoloiak, mondejua, txoriak, ardoak... Saltzaileak ez zeuden oso eroso goizeko lehen orduetan, «jende gutxi etorriko da», zioten euren postuak euriarengatik babesten zituzten bitartean. Goizak aurrera egin ahal, ordea, jende asko gerturatu zen azokara, batez ere 12:00en bueltan. Izan ere, aipatu orduan Babarrunaren Kofradiak Tolosako babarruna banatu zuen doan inguratzeko zirenen artean, eta zegoen giroarekin batek baino gehiagok eskertu zuen «zerbait beroa» eskuratu ahal izatea. Guztira 1.000 bat razio banatu zituzten.

Bestalde, Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa ere izan zen goizetan. Oso goizetik, 08:00etatik, Fronton jatetxeko

Roberto Ruiz sukaldariak eta beste hainbat adituk lehiaketara aurkeztutako babarrunak manciatu zituzten eta azkenean Albizturko bi eta Legorretako bakarra izan ziren sarituak. Zehazki, Albizturko Juan Ugartemendiak eraman zuen lehen saria, bigarrena Legorretako Joxe Mujikarentzat izan zen eta hirugarrena ere Albizturko geratu zen, Alberto Labakaren eskuetan. Guztira 22 babarrun ekoizle aurkeztu ziren, guztiak «oso kalitate onekoak» Roberto Ruizen hitzetan.

Enkanteko lakaria, etxean

Ekoizleen sariak banatu eta gero, Triangulo plazan bertan, lehiaketako babarrun irabazleetik lakaria bat, 3 kilogramo, jarri zituzten enkantean. Jasotako dirua, gainera, Togoko San Paul Ikastetxeko Elizbarrutiko Eskolarako izango delarik.

Norgeiagoka Donostiako Illarra eta Tolosako Fronton jatetxearen artean egon zen, 600 euroko eskaintzarekin hasi ziren eta azkenean zenbateko sinboliko batekin amaitu zen enkantea: 2.015 euro (Tolosa 2015 ekimenari keinu eginaz). Fronton jatetxeko Roberto Ruizek eraman zuen lakaria.

Txapela omenduz

Baina atzokoa babarrunarekin batera izan zen omendu zen beste konturik ere; txapela. Batetik, Txinparta elkarten Txapelaren Lehiaketa izan zuten, non guztira 31 pertsonak hartu zuten parte; 23 gizon eta 8 emakume. Irabazlea azkenean Xabier Garikano izan zen gizonetan eta Mertxe Gurrutxaga emakumeen artean.

Bestetik, udaletxean, Tolosan eta mundu osoan ia, txapelgintzan buru den Boinas Elosegiren enpresa omendu zuten senitarteko desberdinei txapel bana emanaz; Miren Elosegiri, Mari Carmen Elosegiri, Juan Jose Elosegiri, Mañel Arbanzagiri eta Maria Jesus Garmendiari, zehazki. Era berean, Antton Agirre etnografoa, Enkarerrieta Museo, Dombane Lohizuneko Ecomusee Basque eta Musee du Beret ere omendu zituzten.



Aterkiak ziren nagusi atzokoa Babarrun Azoka Berezian, jendea, hala ere, ez zen etxean geratu. R.C.

«Behar bada gure baserrian argi asko jotzen duelako da onena»

JUAN UGARTEMENDIA » Babarrun Ekoizleen Lehiaketako irabazlea

Albiztur » Ez da Tolosako lehiaketan parte hartzen duen lehen aldiz; bigarren eta hirugarren sariak ere jaso izan ditu.

REBEKA CALVO

Juan Ugartemendia izan zen atzokoa Trianguloan izan zen Babarrun Ekoizleen Lehiaketako irabazlea. Albizturko Urretandi baserriko babarrunak dira, hortaz, aurtengo hoberenak, baina Ugartemendiak ez du bere sekretua lau haizetara zabaldu nahi, hori bai pistorik eman du: «Argi asko jotzen du gure baserrian».

Zer gertatzen da Albizturarekin, bi aurkeztu zarete lehiaketara eta biek irabazi duzue!

Horrela da bai, harro egoteko modukoa da. Albizturko lurrak onak



R.C.

izango dira babarruna lantzeko, nonbait.

Zein da zure sekretua?

Ez dakit, argi asko jotzen du gure baserrian, behar bada horregatik izango da. Beste urte batzuetan

ere aurkeztu izan nahiz eta bigarren eta hirugarren postuak ere irabazi izan ditut.

Aurtengo babarruna oso ona omen da, zergatik ote?

Babarrun onak ateratzeko lehorra behar du eta udaberria bustia izan bazen ere udara nahiko lehorra izan da, horregatik izango da.

Gaztetan seguru makina bat babarrun jandakoa zarela, ia egunero, orain ere horrela al da?

Ez, ez. Gaztetan ez geneukan besterik eta babarrunak jan eta jan egon behar izaten genuen, gaur egun ordea badugu aldatzen joan ahal izateko jaki gehiago. Orain astean behin edo bitan besterik ez ditugu jaten.

Eta nola egiten dituzue?

Aurretik beratzen jarri gabe, 09:00etatik 13:00etara sutan jarri eta nahiko da. Tipula, ura eta olioak besterik ez diegu jartzen.

» SARI BANAKETA

Lekale onenaren saria

- 1. postua. Juan Ugartemendia.
- 2. postua. Joxe Mujika.
- 3. postua. Alberto Labaka.

Enkantea

- 2.015 euro. Juan Ugartemendia-babarrun lakaria Fronton jatetxeak erosi du 2.015 euroren artean.

» TXAPELA JARTZEA

Gizonezkoak

- 1. postua. Xabier Garikano.
- 2. postua. Manuel Tolosa.
- 3. postua. Javier Altadill.

Emakumezkoak

- 1. postua. Mertxe Gurrutxaga.
- 2. postua. Desire Gonzalez.
- 3. postua. Maria Jose Lopez.

Parte-hartzaile zaharrena

- 90 urte. Florentino Gastesi.

Parte-hartzaile gazteena

- 6 urte. Lucia Aranzabe.

Elkarteko kideetan

- 1. postua. Pedro Juan Oria.
- 2. postua. Antonio Merino.



Jende asko gerturatu zen babarrunak dastatzera. R.C.



Boinas Elozegi omendu zuten atzokoan udaletxean.R.C.



Goizeko 08:00etatik aritu ziren sukaldariak babarrunak egiten, ondoren banatu ahal izateko.R.C.



Artisauak eta liburuak ere eskura

TOLOSA ■ Pixka bat beranduxeago, 11:00ak aldera, ireki zituzten liburu zein artisauen azokak San Frantzisko pasealekuan, baina bertan ere jende asko ibili zen atzokoan. Artisauen azokan 20 bat postu ikus daitez-

ke gaur bitarte. Bertan denetatik eskuratu daiteke; bitxiak, jaki desberdinak, zeramikak, kosmetiko ekologikoak... Liburuen kasuan, Liburu Ganbarak antolatuko azoka, hilaren 30era arte bisitatu daiteke. **REBEKA CALVO**

«Txapela maite dudalako hartzen dut parte lehiaketan»

XABIER GARIKANO ▶ Txapelduna

Tolosa ▶ Txapela nork hobeto jantzi X. lehiaketa jokatu zen Txinparta elkartearen eta Xabier Garikanok irabazi zuen.

A. IMAZ

Tolosan jaio zen Xabier Garikano 1931. urtean, eta bertan hil nahi omen du gainera. 77 urte eduki arren txapela janzen sasoiko mantentzen da.

Txapelketa honetan parte hartzen duzun lehendabiziko aldia al da?

Ez. Aspaldidanik hartzen dut parte. Baina ez naiz irteten lehiaketa-gatik, txapela maite dudalako. Txikitan 4 anaiak txapela gorriarekin ibiltzen ginen, horretara behar-heren gintuzten. Gure uniformearen.

Noiz pasa zinen gorritik beltzera? Ahal izan nuen azkarrena.

Nola janzen da egoki txapela?

Tiranteak janzen diren bezala. Ez dut ispilurik behar txapela janzteko. Niretzat gantzontziloak bezala dira; udaran beroa egiten duelako ez dut janzen baina neguan beti. Lehiaketan nire ustez txapela era-



ASIER IMAZ

biltzen duenak parte hartu behar-ko luke, ez hemen bakarrik janzen duenak.

Zerbait gehiago esan nahi?

Bai. Lotsagarria iruditzen zaidan gauza bat esan nahi dut. Ertzainek txapelak dituzte, etxean hamar bat izango dituzte. Zergatik ez dute janzen? Txapela euren uniformearen parte da eta ez dute janzen.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Irakaslea.** Pertsona bat behar dugu astelehenerik ostegunera arratsalde Batxilergoko lehengo mailako matematika, fisika, kimika eta teknologiko klaseak emateko. 616 97 49 64. amaia.sagasti@hotmail.com.

SALGAI

■ **Zakurra.** Arratoi-zakur arrazako bost txakurkume. 615 72 56 70.

■ **Etrea.** Intzako herriko plazan 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzea, modu onean salgai, ezinduentzako egokitu, landetxea jartzeko aukera. 628 03 07 27 / 646 11 14 85 / 609 2183 41. estanga@wanadoo.es.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

Jarduna

administrazio zerbitzuak

• KONTABILITATEA

• ZERGAKEK

• NOMINAK

• KOBRANTZAK

Martin Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazioa@jarduna.net

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialedea: 687 410 034. alegialedea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzailedea: 687 410 118. leitzailedea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azokak

- **Alegia.** Bigarren Eskuko Azoka izango da lehenengo aldiz, Joseba Llamas apaiz alegiarrak lan egiten duen Ipar Potosin (Bolivia) nekazal eskolaren alde. Arropak, liburuak, diskak edota jostailuak ari dira jasotzen.
- **Tolosa.** Artisansa azoka San Frantziskoren: Napalur artisau taldearen 20 postu egongo dira.
- **Tolosa.** Liburu Azoka San Frantzisko pasealekuan.

Babarrunaren Astea

- **Tolosa.** Tolosako babarrunaren lehiaketa gastronomikoa Zerkausian 08:30etik aurrera. Sari bana-keta toki berean egingo da, 13:00etatik aurrera. Ondoren, 14:30etik aurrera, herri bazkaria 500 lagun ingururentzat.

Kultur Asteak

- **Aduna.** Goizean, txerriari harre-
ra, eta txerri-boda: Odolkiak eta
txorizoak nola egiten diren erakus-
keta, pintxoak, barrikotea... Astia-
saran anaiek eta Juan Mari Beltra-
nek alaituta. 14:00etan bazkaria.
- **Ibarra.** Kultur Trukearen baitan,
Esperanza Latina Elkarteko kideak
Ekuadorreko dantza erakustaldia
eskainiko dute herriko kaleetan
zehar eta ondoren, Ekuadorreko
eta Saharako jakien dastatzea San
Bartolome plazan.

Musika

- **Tolosa.** Santa Zezilia musikari-
en zaindariaren omenezko kontzer-
tua Leidor aretoan, 12:00etan,
Giro arte dultzaina taldea, Udala
Txistulari Banda, Maiatz akordeoi
orkestra, Isidro Larrañaga akordeoi
orkestra eta Tolosako Musika
Bandaren partaidetzarekin.

San Martin jaiak

- **Amasa.** 11:00etan hasiko da
Amasako XVI. Mendiatoi.

Deialdiak

- **Alegia.** Bertso-poteoa hilaren
28an, 19:30ean, Unai Muñoz eta
Iñaki Gurrutxaga bertsoariekin
eta Eider Zubillaga eta Maider Za-
bala trikitilariarekin; 21:00etan ber-
to-afaria Intxurre elkartearen. Txar-
telak Kultur Etxean salgai 17 euro-
ren truke (azaroaren 26a arte).
- **Tolosa.** Milagrosaren bedera-
tziiurren lurreamendi Egoitzako
kaperan, 08:00etan astegunetan,
09:00etan jaiegunetan eta arrats-
aldeetan, berriz, 16:00etan. Mez-
zaren aurretik errosarioa errezatu-
ko da.
- **Tolosa.** Euskararen eguna dela
eta, Kontseiluak, abenduaren
13an, BECen antolatu duen ekital-
dira autobus antolatu ditu Gal-
tzaundi Euskara Taldeak,
15:30ean aterata tren geltokitik.
Izen-ematea, Galtzaundiko egoi-
tza 11 eurotan (bazkideek, 8
euro).

Zinema

- **Tolosa.** Gaur: 17:00etan *Golazen*
euskaraz egingako lehen film
musikalaren estreinaldia
(doan, leihatilari gonbidapena
jaso behar da); 19:30ean *Happy*;
22:00etan *Tropic Thunder*.
Bihar (ikuslearen eguna):
20:30ean, *Happy*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur**
- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea,
10. 943 67 60 13.
 - **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren,
52. 112.
- Bihar**
- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal He-
rria, 46. 943 67 32 74.
 - **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95.
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esaneri
eta iritzien erantzunik.



Taloak nola egiten diren ikasten

ALBIZTUR • 40 lagun inguru elkartu ziren atzokoan Al-
bizturren eguneko talo tailerrean. Hain zuzen ere, Laz-
kaoko talogileak joan ziren taloak nola egiten diren
erakustera. Askok egiten dituzten akatsen inguruan
galdetu zieten adituei, nola hobeto egin ikasi asmoz.
Beste batzuk berriz, jateko prest agertu ziren. Txisto-

rra, hirugiharra, gazta eta txokolatarekin jan zituzten
taloak. Bestalde, San Gregorioren omenezko jaiei
amaiera emateko, gaur, meza izango da izen bereko
ermitan, 11:15ean hasita. Ondoren, toka txapelketa
herrikoia jokatuko dute. Eguraldia dela eta, azkenean,
frontoian egingo dutela azaldu dute. E. EZBZA

A Agurrak



Zorionak!

**Jon Ander Agirre Agirrezabala
Etxarri.** Muxu handi bat
Sara eta Arantxaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitzaan: Udaletxe bulegoa

agurrak

Galitzarri, Euzkara Taldeak eta Tolosaldeko Hitza. 1936ko Gerrako Oroitzapenak. Tolosaldean eta Leitzailean.

<p>AZAROAK 28, OSTIRALA</p> <p>Gaitzarri antzindaria Euzkara Taldeak antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea.</p>	<p>ABENDUAK 1, ASTELEHENA</p> <p>1936ko Gerrako Oroitzapenak. Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea.</p>	<p>ABENDUAK 2, ASTEARTEA</p> <p>1936ko Gerrako Oroitzapenak. Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea. Xabier Larrañaga, Gaitzarri antzerki taldea.</p>
--	--	---

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI gaitzarriantzerki hitza